


KAIXO, DEBABARRENA

EIBAR OSPITALE BERRIA

Osasun arreta hobe
Debabarrenerako:

Kontsultak
Probak
Profesionalak

...





EIBAR OSPITALE BERRIA

HURBILAGO, ARRETA HOBEA

Eibar Ospitale berria Debabarreneko osasun arreta hobetzeraz dator. Izan ere, irekitzen denean, herritarrei dagoeneko ematen zaizkien zerbitzuak baino gehiago emango dizkie eta eskualdeko 75.000 biztanleei irisgarritasuna eta eskaintza sanitarioa hobetuko dizkie.

Debabarrena ESlaren egituraz beste zentro bat bezala txertatzen den ospitale berri honek instalakuntza modernoak ditu honako zerbitzu hauek eskaintzeko: Lehen Mailako Arreta (familia-medikuntza eta pediatria), Osasun Mentala, erresonantzia magnetikoko talde bat (Osatek) izango duen Erradiodiagnostikoko zerbitzua eta Errehabilitazioko zerbitzua. Era berean, kanpo-konsultetan 8 espezialitate eskainiko dira 14 kontsultetan. Azkenik, 20-24 oheko hiru ospitaleratze-unitate izango ditu bi solairutan banatuta.

Erreferentziako ospitalea Mendarokoak izaten jarraituko duen arren, Eibar Ospitalea hurbilago dagoen osasun azpiegitura berria izango da, osasun-zerbitzu berriekin.

Azken finean, herritar guztientzako arreta gehiago eta hobea.



8 ESPEZIALITATE



14
KONTSULTA



72
OHE



75.000
BIZTANLE
ESKUALDEAN

01

LEHEN MAILAKO ARRETA, BEHAR DUZUNERAKO.

Orain arte Torrekuako osasun-zentroan eskaini den jarduera guztia gauzatuko da Eibar Ospitalean, lehen mailako arreta zabalduz eta hobetuz. O solairuan egongo dira medikuen eta erizainen kontsultak:

7 kontsulta familia-medikuentzat eta beste 7 erizaintzat, pediatriako kontsulta bat eta haur-erizaintzako beste bat.



EAG

17:00etatik 08:00etara, astelehenetik ostiralera. **24 ordutik**, larunbat, igande eta jai egunetan.

02

OSASUN MENTALEKO ERREFERENTZIAKO ZENTROA.

Osasun Mentaleko zentroa Eibar Ospitale berriko 0 solairuan kokatuko da, aparteko sarrera izango du eta 850 metro koadrotan 12 kontsulta izango ditu, honako programa hauei erantzuteko: Helduen Psikiatria Orokorra, Haur eta Gazteen Psikiatria, Nahaste Mental Larriak, Alkoholismoa, Toxikomania Ez Alkoholikoak, Psikogeriatría, Elikadura Jokabidearen Nahasmenduak eta Metadona Programa.



08:00etatik 15:00etara astelehenetik ostiralera.

03

ZORTZI ESPEZIALITATEREN KANPO-KONTSULTAK.

Zortzi espezialitate hauetako arreta emango da hamalau kontsultetan:

- KARDIOLOGIA
- ARNAS APARATUA
- BARNE-MEDIKUNTZA
- NEUROLOGIA
- ERREUMATOLOGIA
- ERREHABILITAZIOA
- TRAUMATOLOGIA
- ENDOKRINOLOGIA



04

ERREHABILITAZIO-ZERBITZUA.

Errehabilitazio-zerbitzuak arreta eskainiko die anbulatorio eran doazen pazientei eta ospitaleratutakoei.

Horretarako bi gimnasio izango ditu, bi kontsulta eta giharrak indartzeko gela bat (mugigela). ESIaren gaur egungo eskaintzari bihotzeko errehabilitazioa ere gehituko zaio.

05


OSPITALERATZEA, HEMEN GAUDE.

Ospitaleak 20-24 oheko hiru ospitaleratze-unitate izango ditu bi solairutan banatuta. Bertan Barne-medikuntza Zerbitzuak beste espezialitateekin koordinatuta emango du arreta.

ESKAINITZA SUSPERRALDIARI, ERREHABILITAZIOARI ETA ZAINKETA ARINGARRIEI BEGIRAKOA IZANGO DA.



ZERBITZUAK SOLAIRUKA



IREKIERA MAILAKATUA

2018/10/29an hasita

LEHEN FASEA	BIGARREN FASEA	HIRUGARREN FASEA
Torrekuako LMAU	Farmazia	
EAG	Ospitaleratzea 20-24 ohe 1.S-A	Ospitaleratzea 20-24 ohe 2.S-A
Kontsulta espezializatuak	Ospitaleko Errehabilitazioa	
Gimnasioa + KK Errehabilitazioa		
Erradiodiagnostikoa-Osatek		
Osasun Mentala-Torrekuak		
Osasun Publikoa		

* Bi unitate iraunkorrak izango dira eta hirugarrena (ospitaleratzea 20-24 ohe 2.O-A) osasun larrialdietan irekiko da: epidemiak, istripu kolektiboak edo edozein osasun premia berezi gertatzen bada.



06

ERRADIODIAGNOSTIKOA.

Ospitale berriak izango duen erradio-diagnostikoko zerbitzuan ohiko X izpi robotizatuak, teleaginte bidezko X izpiak, erresonantzia magnetikoak, eko-grafiak eta ortomamografiak egingo dira.



Erradiodiagnostikoko zerbitzuaren ekipamendua:

OHIKO X IZPI ROBOTIZATUAK
TELEAGINTE BIDEZKO X IZPIAK
ERRESONANTZIA MAGNETIKOAK
EKOGRAFOAK
ORTOPANTOMOGRAFOA

ETENGABEKO ARRETA GUNEA (EAG)

17:00etatik 08:00etara lan egunetan eta **24 orduz** larunbat, igande eta jai egunetan.

Eibar Ospitale berriaren irekiera eta zerbitzuei buruzko argibideak:

943 03 29 00
eibarospitalea@osakidetza.eus

